

# JATORTASUNEZ, LEHEN ESANDAKO EZ GAINERA



zenak ahalik eta jatorren gordetzeaz, Hondarribiko Euskal Herrian Euskaraz taldekoei kontseilu gisako artikulu bat idatzi nien *Hondarribia* aldizkarian (ikus, 82. zenb., 28. or.), eta oraingo honetan jarraipenezko beste zenbait ohar gaineratu nahi nituzke.

Artikulu haretan imprimeriako zenbait huts nabari ziren eta horietako bat, honako hau: zer irudituko zitzaien donostiarrei, donostiatarra esango bagenie? Horregatik behar genuke hondarribiarra, t-rik gabe, tolosarrei bezala. Hori eskatzen bai du gure hizkuntzak jator erabiliko bada, bokalez bukatzen delarik t-rik gabe erabiltzea. Batzuren ustez zalantzarria da, baina Hondarribiari buruzkoan ez dago inolazko zalantzarik lehenagoko zaharrei jaramon egiten badiegu, horien artean hemen bertan artxibari izan zen Serapio Mujika zenaren idatziak ditugu lekuko.

Hondarribiar gazteen artean euskara motel samarra nabari da; hala nola mintzatzen direnena. Hobe lukete euskara gehiago erabili, moteltasunok uxatzeko eta erabileraz hobetzeko. Hori bai, ekintzetan asmo ona nabaria da, inork ez du zalantzarik jartzen, baina batzutan asmo ona ez da aski eta on beharrez kalde egiteko zorian eror gaitzke.

Adibidez, Amuten ikusten ditut norabidezko iragarkietan *San Sebastian*, *Renteria* eta *aereopuerto* borratuak. Zergatik ordea?

Ez dut esango hori Euskal Herrian Euskarazkoek egin dutenik. Ez bai dut horren lekukotasunik, baina bai errepikatu bidailari gehienek ez dakitela euskararik eta horiek ere laguntza behar dutela. Beraz, kontutan har dezatela borratzen ibili direnek.

Ongi da *Donostia/San Sebastian* jarri dezaten eskaria. *Renteria* ordea, eratorria izanagatik, orain bertakoa da. *Renteria* eta *Errenteria* ez bai daude Euskal Herritik kanpora. Hauek Bizkaia eta Gipuzkoan baizik ez daude eta gure foruak indarrean zeuden garaikoak dira. Horregatik gure historiaren lekuko. Garai haietan, Estaduak Ebro ibaian zituen aduanak eta Euskal herriak itsasaldeko portuetan. Norbaitek Orereta nahiago baldin badu, jakin dezala historian zehar Orereta ez dela inoiz izan hiriaren izena. Bestalde, *aereopuerto*-tik *aireportu*-ra zenbat alde dago? Merezki ote du ukitzea? Ukitezkotan ere, biak jartzea eskatu. Zeren oroi European gaudela.

Trafiko iragarkiak egiten dituztenei ere aditzera eman beharko zaie *Llobregat* ez dela bertako izena. Nonbait, norbaiten handikeriz jarri zitzaion izen hori, *Arkolla* jarri beharrez. Oraintsukoa izatez gainera jaun baten titulua baizik ez da, Barkaiztegi deituradun Conde de Llobregat Zuloaga Aundiko jabea zelako. Baina, auzoaren izena, esan dudan bezala, Arkolla da (ez Arkoll, askok dioten bezala). Arkollaren etimologia, nire ustez, Ar-kolla (har-goya) izan daiteke; euskaraz *k* eta *g* legez aldakorak bai dira kontsonanteak nola datozenaren arabera; aldiz, ahoskatzean zein idaztean maiz nahastu izan dira *y* eta *ll* letrak aldakor bezala.

Kalean bada jauregi bat bere izena galtzen ari dena. Ez dago iragarkirik, baina guziei oker entzuten ohituak gaude eta merezi du, jendeak jakin dezan, bere izen jatorra zein den erabiltzera bultzatu. *Casa de Juana la loca* etxeaz ari naiz. behin etxe hori ostatutzat hartu zuela eta aski ote izena aldatzeko? Etxe horren izen jatorra *Egiluz* da; etxe aintzinean (etxe aurrean) duen armarria ere *Egiluz* deiturarena.

Montaña deritzagun parte guzia, XVII. mendean, Kornutz zen, beste izen batez Mugirio bezala ezagutzen zena, Isastik bere *Compendio historial de Guipúzcoa* (1625) liburuaren 91 eta 491 orrialdeetan dakarrenez. Lehen lehenago, 1481. urtean, Udaleko artxibategian agertzen denez, Cornuz zen (beraz, era jatorrean Kornutz). Orain nekeza litzaziguke era jator horretara itzultzea. Baina nork daki? Agintariek eta auzokideek borondaterik balute, zergatik ez?

Gure egunotan auzo berri bati jarri diote Sokoa izentzat. Asmatua noski. Baina inguru horrek ez ote zuen beste izenik? Baietz esango nuke.

Juan San Martin